

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

NEKAZARITZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

Onura publikoko mendia mugatu eta mugarriztatzeko espedientea jendaurrean jartzea. Irargarki honen bidez, “Los Castillejos-Pico Zaballa”, “Peña Hueca”, “Rivabuitre” eta “Alto del Lago” izeneko onura publikoko mendiak mugatu eta mugarriztatzeko espedientea jendaurrean jarri eta erreklamazioak aurkezteko epea abiarazten da —hurrenez hurren, Arabako onura publikoko mendien katalogoko 25, 50, 53 eta 55 zenbakiko mendiak, Aiarako udalerrian kokatuak, Soxo herriaren jabetzakoak—, Arabako Lurralde Historikoko Mendien Foru Arauan eta Mendien Erregelamenduan ezarritakoaren arabera

“Los Castillejos-Pico Zaballa”, “Peña Hueca”, “Rivabuitre” eta “Alto del Lago” izeneko onura publikoko mendian neurketak eta behin-behineko mugarriztatzea egiteko lanak amaitu ondoren (hurrenez hurren, Arabako mendien katalogoko 25, 50, 53 eta 55 zenbakiko mendiak, Aiarako udalerrian kokatuak, Soxo herriaren jabetzakoak; honekin batera doan eranskinean daude zehaztuta haren mugak Arabako Lurralde Historikoko Mendien Foru Arauan ezarritakoaren arabera), jakinarazten da mugatze eta mugarriztatze espedientea Aiarako Udalaren bulegoetan jartzen dela jendaurrean (La Iglesia auzoa, 01476 Arespalditza) interesdunek azter dezaten, iragarki hau argitaratu eta hurrengo hamabost egunetan. Mendien Foru Arauan (11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa) eta, ordezkotako eta osagarri, Mendien Erregelamenduaren 120. eta 121. artikuluetan (485/1962 Dekretua, otsailaren 22koa) ezarritakoaren arabera egiten da hala.

Era berean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo hogeita hamar egunetan, erreklamazioak onartuko dira, eskubidea izanik aurkeztu badira; Arabako Foru Aldundiaren Mendien Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio, dela Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Nagusian aurkeztuz (Probintzia plaza 5, 01001, Gasteiz), dela Aiarako Udalean.

Neurketa lanen kontra erreklamazioa aurkezteko, beharrezkoa da neurketa lanetan han bertan egon izana norbera edo norberak izendatutako ordezkari bat.

Jabetzari buruzko erreklamazioez den bezainbatean, erreklamazioan berariaz aipatu behar da administrazio bidea amaitzeko asmoz aurkezten dela, gero arlo zibileko epaitegietara jotzeko alde aurreko izapide gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 8a

Nekazaritza zuzendaria

ALFREDO SAEZ DEL CASTILLO BELTRÁN DE OTÁLORA

ERANSKINA

“Los Castillejos-Pico Zaballa” izeneko mendiaren mugak (onura publikoko mendia, 25 zenbakikoa):

Iparraldean: 5. zenbakiko onura publikoko mendia, Artziniegako Udalarena, eta 753 zenbakiko onura publikoko mendia, Lantenoko herriarena.

Ekialdean: Opellorako herriaren jabetza pribatuak.

Hegoaldean: Soxoko herriaren jabetza pribatuak.

Mendebaldean: Soxoko herriaren jabetza pribatuak eta 5 zenbakiko onura publikoko mendia, Artziniegako udalarena.

“Peña Hueca” izeneko mendiaren mugak (onura publikoko mendia, 50 zenbakikoa):

Iparraldean: Soxoko herriaren jabetza pribatuak.

Ekialdean: Soxoko eta Erbiko herrien jabetza pribatuak; eta Ibaizabal erreka, Arbiletan.

Hegoaldean: Soxoko herriaren jabetza pribatuak.

Mendebaldean: idem.

“Rivabuitre eta Alto del Lago” izeneko mendiaren mugak (onura publikoko mendia, 53 zenbakikoa):

Iparraldean: Soxoko herriaren jabetza pribatuak.

Ekialdean: Soxoko herriaren jabetza pribatuak.

Hegoaldean: Burgosko katalogoko 548 zenbakiko onura publikoko mendia, “Entrambaspeñas” izeneko, Angulo de Menako herriarena, eta Soxoko herriaren jabetza pribatuak.

Mendebaldean: Burgosko mendien katalogoko 548 zenbakiko onura publikoko mendia, “Entrambaspeñas” izeneko, Angulo de Mena herriaren jabetzakoa; Burgosko mendien katalogoko 550 zenbakiko onura publikoko mendia, “Horquilla” izeneko, Menako haraneko udalaren jabetzakoa, eta Soxoko herriaren jabetza pribatuak.

“Trascanteras” izeneko mendiaren mugak (onura publikoko mendia, 55. zenbakikoa)

Iparraldean: Soxoko herriaren jabetza pribatuak.

Ekialdean: Erretesko dermioa.

Hegoaldean: Soxoko herriaren jabetza pribatuak.

Mendebaldean: idem.